



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

40 ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).

B SAILA:

**Foru Lege Proposamenak:**

—Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena. Aurkeztutako emendakinak (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua**

### *AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu da. Proiektu hori 1998ko maiatzaren 6ko 31 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **OSOKO EMENDAKINAK**

#### **1. EMENDAKINA**

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### **PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Gobernuak Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua Parlamentura igortzea oportunita izan da, hain zuzen ere Eusko Alkartasunak Nafarroako Kontseilua arautzeko aurkeztutako Foru Lege proposamena izapidatzen ari zelako Biltzar honetan, Biltzarrak aintzat hartu eta gero.

Gobernuak Lege proiektua igortzearekin gehiengoak babestutako Lege proposamenaren aurka duen jarrera zuritu nahi izan du. Proposamenaren orde, beste autonomi elkarte batzuetan dauden testuak transkribatu besterik ez du egin, nahiz eta autonomi elkarte horiek historikoak ez izan eta Nafarroak baino eskumen gutxiago eduki. Horrela, beste behin, Gobernuak bere asmo berdinzaleak eta berezko erakundeen eta erakunde berezien garapenerako eredu eza erakutsi ditu, aintzat hartu gabe Nafarroa Espainia osoko komunitaterik historikoena dela.

Zioen azalpenean, Nafarroako Erresumako erakunde historikoak aipatzen dira, Errege Kontseilu Gorena eta sobrekartarako eskubidea kasu; lege proiektuaren edukiak, ordea, ez du inongo

loturarik erakunde horiekin, ezta jarraitasunaren aldetik ere: Estatuko Kontseilua autonomi elkartei aholkua emateko eginkizunetan ordezkatzea beste xederik ez du, izan ere esku hartu beharrik ez izateko. Nafarroak bere erakundeak antolatze-ko eskumen historikoa du, LORAFNaren 49.1.a) eta e) artikuluek aitortzen duten bezala; Gobernuak bidalitako Lege proiektuak ez du deus berri-rik ekartzen, eskumen horiek erakundeen garapenerako baliatzearen ondorioetarako, alegia, autogobernua indartzeko eta Nafarroako nazioak daukan historiari, nortasunik eta autogobernuko tradizio-rik ez duten erregio mailako lurralde-oinarria duten komunitateekiko aldea handitzeko.

Beste behin, Gobernu hau bitarteko bat suertatzen da Nafarroa erregio mailako autonomi elkarteekin berdintzeko eta berezko erakundeen erreferenteak, nortasun kolektiboaren atal garrantzitsua direnak, galarazteko. Penagarria da egiaztatzea beste komunitate historikoek Konstituzioak edo estatutuek eskaintzen dituzten aukera guztiak beren autogobernua eta erakundeak indartzeko aprobetxatzen dituzten bitartean, Nafarroako gobernu erregionalistak ez duela kontu txiki-ena ere izaten, eta alderantziz, Nafarroa nortasun historikorik ez duten komunitateen parean jartzen dutela, politika murriztaile eta sukurtsal-ista medio.

Erabaki proposamena: Nafarroako Gobernuari Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proposamena itzultzea.

#### **2. EMENDAKINA**

##### **«EZKER ABERTZALEA»**

##### **PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Komunitate autonomoko legegintzako organoetan eta organo betearazleetan eguneroko lanean sortzen diren zalantzak konpontzeko garaian izapideak eta batez ere epeak arintzeko, beharrezko egiten da komunitate autonomo bako-

tzean erakunde horientzat kontsulta eta aholku lanak eginen dituen erakunde bat egotea. Xede horrekin, hamar komunitate autonomok era horretako kontsulta-tresna bat sortu dute, beren esku-menaren esparruan aritzeko, hain zuzen ere Autonomi Kontseiluak derrigor Estatuko Kontseiluari eskatu behar zizkietenak eskatu behar ez izateko.

Aintzat hartzen badugu ekimen hori orain baino lehen ere aurkeztu dela Nafarroan, eta Gobernuak hura garatzeko konpromisoa hartu zuela, gutxienez bitxia bada Gobernuak proposamen hori zehaztu ez izana eduki bereko Lege proposamena aurkeztu dela ezagutu duen arte.

Eusko Alkartasuna Parlamentari Taldeak aurkezturiko Nafarroako Kontseilua arautzeko Lege proposamena Parlamentuko Mahaia izapidatzen hasi eta hilabete eta hamar egun beranduago, 1998ko apirilaren 20an, Gobernuak ezagutzera eman zuen guk osoarekiko emendakina aurkeztu diogun proiektua.

Gure iritzian, bi ekimenak paraleloki izapidatzetik ezin da ondorio onik atera, bai, ordea, beharrezkoa ez den ahaleginen bikoiztea. Gure ustez, lehentasuna eman behar zaio lehen aurkeztu denari eta, ondorioz, aurtengo apirilaren 22an egin genuen bezala, gobernuak bere proiektua erretira dezala eskatzen dugu.

Halaber, ohartarazi nahi dugu berebiziko interesa dagoela Gobernuak proposatzen duen Nafarroako Kontseiluaren figura berri honen sorrera Errege Kontseilua izenekoarekin, alegia Nafarroak gaur ez duen subiranotasuna zeukan garaiko figurarekin, lotzeko -Nafarroa erresuma zen garaiaz ari gara, alegia, gaur estatu independente esanen genukeena-. Bada, Kontseilu berriak behar diren hurbiltasuna eta azkartasuna eskainiko ditu hertsiki Nafarroako esparruari dagozkion erabakiak hartzeko orduan, egun Estatuko Kontseiluaren menpekotasunak berekin ekartzen baitu berak izapidatu beharreko espedienteak atzeratu behar izatea. Ezta urrik eman ere: ezin dira Erdi Aroko erresuma bateko erakunde bat eta Gobernuak kontsultarako erabiliko lukeen erakunde administratibo bat elkarrekin lotu.

Beste maila batean, ohartarazi nahi dugu kontseiluaren izenak berak ere -Nafarroako Kontseilua- erratzeko bidea ematen duela, izan ere Gobernuak laguntzeko balio duten esparru zehatzetako kontseilu guztiak baitira Nafarroako Kontseilu, hasi Kontseilu Ekonomiko eta Sozialetik, eta buka erabat sektorialtzat jo daitezkeen bestelako kontseiluekin: Kulturaren Kontseilua, Euskararen Kontseilua, Ingurugiroaren Kontseilua eta

Nafarroako Eskola Kontseilua -berriki eratua-, gutxi batzuk aipatzearen.

Aurreko argudio guztietan oinarrituta eta Bilzarreko Erregelamenduari jarraituz, hona proposatzen dugun Erabaki proposamena:

Gobernuari itzul dakiola Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua.

## **ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

### **1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

#### **1. EMENDAKINA**

##### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

#### **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Lehenbiziko artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina.

1. artikulua. 1. Nafarroako Kontseilua eratu da, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholkuemaile gorena izateko.

2. Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

#### **2. EMENDAKINA**

##### **MARTIN LANDA MARCO**

#### **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 2. puntuari aurkezturiko emendakina, azken hiru lerroak kentzeko, "Txostenak eta irizpideak emateko orduan"tik hasi eta bukaeraraino.

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

## 2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 3. EMENDAKINA

#### **MARTIN LANDA MARCO**

##### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

2, 3, 4, 5 eta 6. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

### 4. EMENDAKINA

#### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

##### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

2. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina.

2. artikulua. 1. Kontseiluak, jardunean, zaindu egingen du Nafarroako Foru Komunitateko lege-antolamendua Foru Lege honi jarraituz betetzen eta betearazten dela.

2. Bere eginkizunetan, Kontseiluak aholkua eskatzen dion agintariak espreski eskatzen dionean baizik ez ditu baloratuko aukera eta komenentzia alorrak.

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

## 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 5. EMENDAKINA

#### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

##### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

3. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina.

3. artikulua. 1. Kontseiluari nahitaez egin beharko zaio kontsulta lege honetan edo beste batzuetan hala ezartzen denean eta, aukeran, gainerako kasuetan.

2. Kontseiluaren irizpenak ez dira lotesleak izanen, Lege honek kontrakoa ezartzen duenean ezik.

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

## 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 6. EMENDAKINA

#### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

##### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina.

4. artikulua. 1. Zazpi kidek, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak izendatutakoek, osatuko dute Kontseilua; horietatik bost Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu, bere kideen gehiengo osoarekin eta gainerako biak Nafarroako Gobernuak beren lanbidean hamar urtez baino gehiago jardun duten gaitasun eta prestigio aitortuko legelarien artean.

2. Kontseilukideak bost urteko eperako izendatuko dira eta berriro hautatuak izaten ahalko dira.

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

### 7. EMENDAKINA

#### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ordez, hurrengo testua jartzeko emendakina.

4. artikulua. 1. Zazpi kidek, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak izendatutakoek, osatuko dute Kontseilua; horietatik bost Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu, bere kideen gehiengo osoarekin eta gainerako biak Nafarroako Gobernuak beren lanbidean hamar urtez baino gehiago jardun duten gaitasun eta prestigio aitortuko legelarien artean.

2. Kontseilukideak bost urteko eperako izendatuko dira eta berriro hautatuak izaten ahalko dira hurrengo aldi batzuetarako. Hiru urtez behin Kontseilu Aholku-emaileko kideen erdia berrituko da.

Zioak: kontseilukideetatik gehienak Parlamentuak hautatzearen alde gaude.





10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINA

17. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 10. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Haren edukia Parlamentari honek 9. artikuluari aurkeztutako emendakinaren testuan dago.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINA

18. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 11. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Beharkizun horiek Kontseiluak eginen duen erregelamenduan ezarri behar dira.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK

19. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 12. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina

12. artikulua. 1. Ezin izanen da aldi berean kontseilukide izan eta beste edozein ordezkaritza-agin-pide edo edozein kargu politiko eduki, edo bestela alderdi politiko batean edo sindikatu batean zuzendaritza eginkizunetan jardun eta haien esanetara lan egin, edo epaile eta fiskal karreretan jardun.

2. Izendatzen den egunetik hamar lanegun epearen barrenean hautaturiko kontseilukideak bere bateraezintasunaren arrazoia uzten ez badu, ulertuko da ez duela kargua hartzen eta beste kontseilukide bat izendatuko da.

3. Kontseilukide kargua hartzen duten funtzionario publikoek jatorrizko Administrazioan jarduneko zerbitzuan jarraitu ahalgo dute. Kasu horretan, funtzionario publikoen bateraezintasunari buruzko araubide orokorra aplikatuko zaie.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

20. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko e) idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: badirudi bateraezintasunak nahi ez diren ondorioak ekar ditzakeela.

21. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko II. kapituluaren beste artikulua bat eransteko emendakina. Ondoko testua izanen du:

Kontseiluari dagokio bere antolamendu eta eginkizun erregelamendua prestatzea, eta Nafarroako Gobernuari hura onestea, Foru Lege honetako hatsapenekin bat.

Zioak: hatsapen hori argi ezartzea.

22. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko II. kapituluaren beste artikulua bat eransteko emendakina. Ondoko testua izanen du:

Kontseiluak bere aurrekontua prestatuko du eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan atal gisa agertuko da.

Zioak: proiektua Nafarroako Kontseilu Aholku-emileari buruzko Lege proposamenera egokitzea.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK

23. EMENDAKINA

**MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 14, 15, 16, 18, 19, 20 eta 21. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

## 24. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 14. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina.

14. artikulua. 1. Nahitaez, afera hauetan eskatu beharko da Kontseiluaren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.

b) Foru Lege proiektu eta proposamenetan, Nafarroako Parlamentuak hala nahi duenean bere Lehendakariaren bidez, Mahaiak, bi Parlamentari Taldek edo Foru Parlamentarien bosten batek eskatuta, edo Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez.

c) Foru Dekretu Legegileetarako proiektuetan.

d) Beste Administrazio Publikoekiko Hitzarmen edo Itunak ulertzean sor litezkeen zalantza eta ezadostasunetan, Foru Komunitatea alderdi bat denean.

e) Kontseiluaren antolamendu, eskumen edo eginkizunak ukitzen dituzten administrazio xedapen proiektuetan.

f) Konstituzioaren aurkakotasun helegiteetan eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumengatzaletan.

g) Foru Ogasunaren eskubideei buruzko elkaraditzeetan eta horiei buruz sor daitezkeen gatazken arbitraien menperatzean.

h) Kontseilukideen bereizketa.

i) Nafarroako Gobernuak Legeak ezartzen duena betez emaniko erregelamenduak edo eta izaera orokorreko xedapenak, baita haien aldaketak ere.

j) Nafarroako Gobernuaren Departamentuen arteko eskumengatzaletak.

k) Berrikuspeneko administrazio helegiteak.

l) Administrazio ekintzen ofiziozko berrazterketa, Legeek aurrikusten duten kasuetan.

ll) Administrazio kontratuen baliogabetze, interpretatze eta ebaztea, kontratista aurka azaltzen denean, eta, edozein kasutan, kontratuaren prezioak 50 milioi pezetatik gora jotzen duenean.

m) Administrazio kontzesioen baliogabetze, interpretatze, aldatze eta iraungitzea, kontzesioen helburua edozein delarik eta kontzesioduna aurka azaltzen denean, eta, edozein kasutan, ezarri beharreko arauak hala adierazten dutenean.

n) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan zein bere menpeko erakunde publiko edo Nafarroako Toki Erakundearen administrazioan kalte-galeren ordainketa gisa aurkezten diren erreklamazioak.

o) Aparteko kredituak edo kreditu osagarriak ematea.

p) Monopolio eta zerbitzu publiko monopolizatuen kontzesioa.

q) Legeak hala aginduta, Kontseilu Aholku-emaileari edo, bere kasuan, Estatuko Kontseiluari kontsultatu behar zaion edozein gai.

2. Irizpena nahitaezkoa izanen da Nafarroako Toki Erakundeentzat Estatuko Legeek Estatuko Kontseiluaren edo erakunde autonomiko baliokidearen irizpena eskatzen duten kasu guztietan.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

## 25. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko b) idazatia kentzeko emendakina

“Letra honetan xedatutakotik salbuetsita...” hitzetatik hasi eta idazatia bukatu arteko testu gutzia kentzea.

Zioak: badirudi ez dela beharrezkoa gai hori lege honetan zehaztea.

### 15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

## 26. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 15. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina

15. artikulua. Kontseiluak irizpena emanen du, baita ere, aholkua eskatzen zaion gaietan, Nafarroako Gobernuak, bere Lehendakariaren bidez,



edo Nafarroako Parlamentuak, bere Lehendakariaren bidez, Mahaiak, bi Parlamentari Taldek edo Foru Parlamentarien bosten batek hala eskatuta.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

## 27. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko III. kapituluaren beste artikulua bat eransteke emendakina.

Nafarroako Kontseilu Aholku-emailearen irizpenak Estatuko Kontseiluaren irizpena ordezkatzeko du, betiere 11. artikulua ezarritakoa kontuan hartuz.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

## 18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

## 28. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 18. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: beste idazati eta emendakin batzuetan araututa dago hori.

## 19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

## 29. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 19. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina

19. artikulua. 1. Kontseiluaren eztabaidak eta erabakiak baliozgarriak izateko, beharrezkoa izanen da Lehendakaria edo legearen arabera ordezkatzeko duena bertan egotea, bertan dauden kontseilukideen kopurua gehi Lehendakaria gehiengo absolutua izatea, baita idazkaria edo bere ordez aritzen dena bertan egotea ere.

2. Erabakiak Kontseilua osatzen duten kontseilukideen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketarik egonez gero, Lehendakariak erabakiko du kalitateko botoa erabiliz.

3. Gehiengoaz hartutako erabakiarekin ados ez dauden kontseilukideek idatzizko boto partikularra egiten ahal izanen dute, erregelamenduak zehaztuko duen epearen barruan. Boto hori irizpenari gehituko zaio.

4. Kontseilukideek ez dute botorik emanen beraiek zuzenean parte hartu duten gaietan, edo eta odolkidetasunezko bigarren maila zibileko senideek parte hartu edo interesik duten beste gainerako guztietan.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

## 20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 30. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 20. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: barne erregelamenduan arautu behar da hori.

## 31. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko d) idazatia kentzeko emendakina

Zioak: badirudi ez dela beharrezkoa hemen zehaztea hori.

## 21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 32. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 21. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: barne erregelamenduan arautu behar da hori.

**33. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: beste emendakin batzuekin bat etortzeko.

**34. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko IV. kapituluaren beste artikulua bat eranstea emendakina. Ondoko testua izanen da:

1. Kontseiluari aholkua emateko aurkeztutako gaietan zuzenean ukitutakoek hitza izaten ahalko dute Kontseiluaren aurrean.

Hitz ematea Lehendakariak erabakiko du, ukitutakoek hala eskatuta edo ofizioz. Hitz ematea egiten da, betiere, aholkua emateko aurkeztutako gaietan Administrazio Publikoa zuzenean ukitua dagoenean eta ukituta dagoela adierazten duenean.

2. Aholkua emateko aurkeztutako gaietan jakintza tekniko nabarmena daukaten erakundeak edo pertsonak gonbidatuak izaten ahalko dira, Kontseiluaren aurrean bere txostenak azal ditzaten, idatziz edo ahoz, gonbidapena zuzenean edo aholkua eskatzen duen erakundearen bidez.

3. Edonola ere Kontseiluak, bere Lehendakariaren bidez, agintzen ahalko dio aholkua eskatzen duen erakundeari espedientearen osa dezan, beharrezkoak iruditzen zaizkion aurrekari, txosten eta frogak guztiekin, baita irizpidea emateko jartzen diren gaiekin zerikusirik duten gorabeheretan jakintza nabarmena daukaten pertsonen edo erakundearen iritziekin ere. Halako kasuetan, irizpena emateko epea geroratuko da osatzeko agindua betetzen den arte, eta agindu hau betetzen ez den bitartean ulertuko da aholku ematea ez dela burutu.

Zioak: haren edukia arautu behar da.

**22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****35. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 22, 23, 24. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

**36. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 22. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina

22. artikulua. 1. Kontseiluak hilabeteko epea dauka egindako kontsultei erantzuteko, irizpen eskaera jasotzen duen egunetik kontaktatzen hasita. Epea bukatutakoan erantzunik ez bada, aurkeztutako gaiaren aurkako objektiorik ez dagoela ulertuko da.

2. Espedienteak bidaltzen dituen aginduak irizpena premiazkoa dela esaten duenean, erantzuna emateko gehienezko epea hamabost egun balioduneko izanen da.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

**37. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina

1. Kontseiluak hilabeteko epea dauka egindako kontsultei erantzuteko, irizpen eskaera jasotzen duen egunetik kontaktatzen hasita. Epea bukatutakoan erantzunik ez bada, aurkeztutako gaiaren aurkako objektiorik ez dagoela ulertuko da.

2. Espedienteak bidaltzen dituen aginduak irizpena premiazkoa dela esaten duenean, erantzuna emateko gehienezko epea hamabost egun balioduneko izanen da.

Zioak: egokiagoa da Kontseilu Aholku-emaile-aren funtzionamendu- beharretarako.

### 23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 38. EMENDAKINA

##### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 23. artikulua ordez ondoko testua jartzeko emendakina.

23. artikulua. Kontseiluaren irizpenak, irizpenaren oinarri izan den agiriarekin batera, Parlamentuan bideratzen diren ekimen legegileen espedientean sartuko dira.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenera egokitzea.

### 24. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 39. EMENDAKINA

##### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 24. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: parlamentari honek aurkeztutako beste emendakin batzuetan araututa dago hori.

#### 40. EMENDAKINA

##### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

V. kapituluaren beste artikulua bat eransteko emendakina. Ondoko testua izanen du:

Kontseiluak gai bati buruzko aginduzko irizpena ematen duenean, Foru Komunitateko beste edozein erakundek ezin eginen du, ondorengo sei hilabeteetan, gai horri buruzko txosten juridikorik.

Zioak: zuhurtasun hori ezartzea.

#### 41. EMENDAKINA

##### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

V. kapituluaren beste artikulua bat eransteko emendakina. Ondoko testua izanen du:

Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari aholkua eskatzea aginduzkoa den kasuetan, Nafarroako Gobernuaren Kontseilari Kontseilu Aholku-emaileak emaniko irizpenarekin ados ez badago, Nafarroako Gobernuak ebartziko ditu, betiere.

Zioak: gai hori arautzea.

### 25 ETA 26. ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 42. EMENDAKINA

##### **FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Proiektuko 25 eta 26. artikuluen ordez hurrengo testua jartzeko emendakina.

1. Kontseiluari laguntzeko, gutxienez, hiru legelari izanen dira. Hauek A mailako lanpostuak betetzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioen artean aukeratuko dira, merezimendu lehiaketaren bidez, betiere lanpostuak betetzeko zuzenbide lizentziatua izatea eskatu zaienean. Legelari horiek Kontseiluari aholkua emateko aurkezten zaizkion gaiei buruzko irizpenak aztertu eta prestatuko dituzte, baita, beharrezkoa denean, irizpen proiektuak idatziko ere. Halaber, erregelamenduaren bidez zehaztuko diren eginkizunak ere aurrera eraman beharko dituzte.

2. Kontseiluak, gehiengo absolutuaz, Idazkari bat aukeratuko du hiru legelarien artean. Kontseiluburuak izendatuko du eta langileen burua izanen da, Kontseiluburuaren eskumenen kalterik gabe. Idazkaria izateko izendapenak bost urteko iraupena izanen du, gero ere berritzen ahalko direnak.

3. Gainerako lanpostuei dagokienez, Kontseiluak bere proposamena eginen du eta Nafarroako Gobernuak onartuko du plantila. Plantila Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioek beteko dituzte, merezimendu lehiaketaren bidez.

4. Funtzionarioek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako gainerako funtzionarioek dauzkaten bateraezintasunak edukiko dituzte.

Zioak: proiektua Parlamentuko Osoko Bilkurak izapidatzeko onartu duen Lege proposamenara egokitzea.

#### 43. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

###### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 25 eta 26. artikuluen ordean ondoko testua, artikulua bakarrean, jartzeko emendakina:

1. Kontseiluak bere aurrekontua prestatuko du eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan atal gisa agertuko da.

2. Kontseiluak bere plantila organikoa onetsiko du; Nafarroako Kontseiluaren plantila organikoa Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta Barne Departamentuan sartuko dira soilik administrazio eta ekonomi kudeaketaren ondorioetarako.

Zioak: planteatutako gaia beste modu batera idaztea.

##### XEDAPENEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 44. EMENDAKINA

##### MARTIN LANDA MARCO

###### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehenbiziko eta bigarren xedapen gehigarriak kentzeko emendakina

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

#### 45. EMENDAKINA

##### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

###### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehenbiziko xedapen gehigarria kentzeko emendakina.

Zioak: beste emendakin batzuekin bat etortzeko.

#### 46. EMENDAKINA

##### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

###### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko emendakina.

Zioak: beste emendakin batzuekin bat etortzeko.

#### 47. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

###### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehenbiziko eta bigarren xedapen gehigarriak kentzeko emendakina.

Gure beste emendakin batzuetan egindako proposamenekin bat etortzeko.

#### 48. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

###### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuan beste xedapen gehigarri bat jartzeko emendakina:

“Kontseilu Aholku-emaileko kideek zerbitzu-harremanik baldin badute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaz bestelako administrazio publiko batekin, azken honen baimena beharko dute Kontseiluan sartzeko.”

Zioak: aukera hori finkatu behar dela iruditzen zaigu.

#### 49. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

###### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko emendakina. Hona haren testua:

1. Foru Lege honetako 20. artikulua behar bezala betetzeko, Nafarroako Foru Komunitatearen Lege Aholkulari-Legelarien kidegoa sortu da, A mailaren baitan. Kidego horri egokituko zaio Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileko legelariei lege ezarri zaizkien eginkizunak betetzea eta baita Nafarroako Foru Komunitateari eta haren erakunde autonomoi zuzenbidezko aholkularitza

ematea eta horiek epaiketetan ordeztu eta defendatzea ere, erregelamenduz zehaztuko den eran.

2. Nafarroako Gobernuak lege aholkulari lanposturako izendapena jabetzan duten karrerako funtzionarioek osatuko dute Nafarroako Foru Komunitatearen Lege Aholkulari-Legelarien kidegoa. Kidego horretan harrezkero sartzea, zuzenbide lizentziatuen arteko oposizioz egingo da.

Zioak: beste emendakin batzuei egokitzea.

## 50. EMENDAKINA

### FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehenbiziko eta bigarren xedapen iragankorren ordezkariak jartzeko emendakina:

Lehena. 1. Foru Lege hau indarrean sartu eta ondorengo hiru hilabeteen barruan, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak izendatu behar dituzten Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileko kontseilukideen izendapen-proposamenak helaraziko dizkiote Nafarroako Gobernuak Lehendakariari.

2. Azken izendapenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondorengo hilabeteen barruan Kontseilua eratu egingen da.

3. Foru Lege honen 16. artikuluko 1. zenbakiak ezartzen duen epea ez da kontatzen hasiko Kontseilua eratzen denetik bi hilabete igarotzen diren arte.

Bigarrena. 1. Aurreko Xedapen Iragankorreko 2. zenbakiak ezartzen duen epearen barruan, eta Kontseiluko Abokatu lanpostuak behin betiko horniturik ez dauden bitartean, Lehendakariak Kontseilariak Nafarroako Foru Komunitatearen Administraziozko zuzenbide lizentziatuak diren hiru funtzionario atxikiko dizkio Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari, nahiz eta hau, ondoren, Foru Lege honen 20. artikulua aipatzen duen merezimendu lehiaketaren oinarrietan ez den merezimendu gisa hartuko.

2. Kontseilua eratu eta hiru hilabeteko epean, Kontseiluak abokatu hiru plaza horiek hornitzeko merezimendu lehiaketarako deia egingen du.

3. Merezimendu lehiaketa, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatuak mailaz igotzeko lehiaketei buruzko idazatian ezarritakoaren arabera burutuko da, baita berau garatzen duten xedapenen arabera ere.

4. Lehen merezimendu lehiaketan, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak Epaimahi kalifikatzaile

leak osatuko du, eta bertan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen Batzordeko ordezkari batek hartuko du parte.

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak hornituko du Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak bere funtzionamendurako behar duen dirua, honek Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu-egoeran bere atala izan arte.

Zioak: xedapen horiek testu berriari egokitzea.

## 51. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat eransteko emendakina. Hona haren testua:

“Nafarroako Gobernuak hornituko du Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak bere funtzionamendurako behar duen dirua, honek Nafarroako Aurrekontu Orokorretako gastu-egoeran bere atala izan arte.”

Zioak: beharrezkoa ematen du aurreikusteak.

## 52. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehenbiziko xedapen berri bat eransteko emendakina:

Foru Lege honek ezartzen duenaren aurka egiten duen edozein xedapen baliogabetzat edo Nafarroako Foru Komunitatean aplikaezintzat jotzen da.

Zioak: proiektuko testuak duen hutsunea betetzea.

## 53. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako lehenbizikoa, bigarrena eta laugarrena kentzeko emendakina.

Zioak: aldi berean izapidatzen ari den Foru Lege proposamenari aurkeztutako emendakinekin bat etortzeko.

**54. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

## FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Azken xedepenetako lehenbiziko, bigarren, hirugarren eta laugarrenaren ordez ondoko testua jartzeko emendakina:

Lehenbizikoa. Foru Lege honek ezartzen duenaren aurka egiten duen edozein xedapen balio-gabetzat edo Nafarroako Foru Komunitatean aplikaezintzat jotzen da.

Bereziki, azaroaren 14ko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legearen 16. artikulua 3. atala baliogabetua gelditzen da.

Bigarrena. Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondorengo egunean sartuko da indarrean.

Zioak: testura egokitzea.

**55. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako lehenbizikoaren ordez, ondoko testua jartzeko emendakina:

1. Foru Lege hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuko Lehendakariari igorriko dizkiote Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea osatuko duten kideen izendapen-proposamena, haiek izenda ditzan.

2. Kontseilua izendapen horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo hilabetean eratuko da.

3. Foru Lege honetako 16. artikuluko 1. zenbakiak aipatzen duen epea ez da zenbatuko kontseilua eratu eta bi hilabete iragan arte.

Zioak: egokiagoa da gure proposamenetarako.

**56. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako bigarrena kentzeko emendakina

Zioak: aurreko emendakinekin bat etortzeko.

**TITULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA****57. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lege osoan zehar, baita izenburuan ere, "Nafarroako Kontseilua" esaten duen tokian "Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea" esan behar du.

Zioak: egokiagoa da gure taldeak daukan jarrerarako.

**ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA****58. EMENDAKINA****FERMIN CIAURRIZ GOMEZ**

## FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren ordez ondoko testua jartzeko emendakina

Bai Nafarroako autogobernuaren sendotzeak bai jendearen interes orokorra eta legezketasun positiboa hurbiltasun handiagoz ezinbestez babestu beharrak, eta, horiez gain, legegintzari eta administrazioaren jarduerari hobekuntza juridiko eta tekniko handiagoa emateko komenentziak egoki egiten dute foru erakundearen eta Nafarroako Administrazio Publikoaren gainetik egonen den organo arau-emailea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan sortzea. Organo horrek beharrezkoa den autonomia izanzen du bestelako erakundeekiko eta bere eginkizunetan, objetibotasuna eta independentzia bermatzeko, Estatuko legediak Estatuko Kontseiluari ematen dizkion eginkizunei eta Foru Lege honek ematen dizkion gainerakoei dagokienez.

Nafarroako Foru Komunitateak, foru araubidearen babesean, erabateko eskumena dauka bere Foru Erakundeak arautzeko eta, halaber, berari dagozkio Toki Administrazioaren alorrean Toki Entitateen administrazio jarduketan legezketasunaren kontrolari buruzko eskumenak. Kontrol hori eraginkorragoa da, zalantzarik gabe, alde zuzeneko geroztik baino.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak behar izan du orain organo arau-emailea sortzera, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak Estatuko Kontseilua Foru Komunitatearen eskumen diren gaitan ordez dezan. Horrela, beraz, autonomia handiagoa

emanen litzaioke Nafarroari, legezkoitasunaren gaurko gorabeherak konponduko lirateke eta eskatzen diren txostenak arinago emanen lirateke.

Zioak: proiektuaren testua Parlamentari honek 7. artikulurako proposatu duen idazkerara egokitzea.

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena**

### *AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamenari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu da. Proiektu hori 1998ko martxoaren 17ko 19 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

#### **1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

##### **1. EMENDAKINA**

#### **MARTIN LANDA MARCO**

#### **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 1. puntuari aurkezturiko emendakina, hurrengo testua jartzeko haren orde:

1.- Nafarroako Kontseilua sortu da, Nafarroako Foru Komunitatearen goi mailako aholkularitza-organo gisa, Konstituzioa, Foruaren Hobekuntza eta gainerako antolamendu juridikoa betetzen direla begiratzeko.

Zioak: aurreko emendakinarekin koherentzia mantentzearen, eta Kontseiluaren definizioa osatzeko.

##### **2. EMENDAKINA**

#### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

#### **PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1.1. artikuluari aurkeztua

Bestelako idazkera proposatzen da:

“1. Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu da, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Administrazioaren goi mailako aholkularitza-organo gisa.

Zioak: organoaren izenaren eta aritzeko eremuaren gaineko jarrera finkatzea.

##### **3. EMENDAKINA**

#### **«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko emendakina.

1.1 artikuluan “Aholku-emailea” kalifikatzailea kendu. Honela hasiko da aipatu artikulua:

“Nafarroako Kontseilua sortu da.....”

Zioak: kontseilua eta aholku-emailea esatea gauzak errepikatzea da eta, gainera, dagokion lehenetsuna eta garrantzia eman nahi zaizkio.

##### **4. EMENDAKINA**

#### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

#### **PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari.

Beste lerroalde bat sartu lehenengo eta bigarrenaren artean, hurrengo testuarekin:

“2. Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak, jardunean, hurrengoak betetzen eta betearazten direla begiratzeko du: Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoa eta gainerako antolamendu juridikoa, eta bere irizpenek ezin izango dute abagune edo komenientziari buruzko baloraziorik sartu.”



Zioak: autonomietako lege gehienetan sartuta dago xedapen hori.

## 5. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

1. artikuluari 3. puntu bat gehitzeko emendakina. Hona:

3.- Nafarroako Kontseiluak gairen bati buruzko irizpena ematen badu, Gobernuak ezin izango dio Administrazioiko beste edozein organori eman txostena eman dezan.

Zioak: arrazoizkoa dirudi Nafarroako goi kontseilu aholkuemaileak bere iritzia ematen duenean gai bati buruz, Administrazioiko beste organo batzuek txostenik ez egitea gai beraren gainean.

## 6. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari gehiketa egiteko emendakina.

Beste puntu bat, amaieran.

“4. Iruñean du egoitza”

Zioak: gaia zehaztu.

### 2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 7. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko lehenengo eta bigarren lerroaldeak kentzeko emendakinak.

Zioak: aurreko emendakinetan aldatu da dagoeneko.

## 8. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. zenbakiko edukia kendu.

Zioak: Nafarroako Kontseilu-aholkuemailea eta Estatuko Kontseilua parekatzeak, ñabardura logi-

ko guztiekin, irizpen eta aholku juridikoak emateko Gobernuaren organo goi mailakoa ekartzen digu.

## 9. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2.1. artikulua aldatzeko emendakina. Hona ordezeko testua:

“1. Kontseiluak hurrengoak betetzen eta beteazten direla begiratu du, bere jardunean: Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta Nafarroako Foru Komunitateko antolamendu juridikoa, Foru Lege honekin bat”.

Zioak: Nafarroako arau multzoaren arau nagusiak sartzea.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 10. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari aurkezturiko emendakina. Beste idazati bat gehitzea.

“3. Nafarroako Kontseiluak gairen bati buruzko irizpena ematen badu, Gobernuak ezin izango dio Administrazioiko beste edozein organori eman txostena eman dezan.”

Zioak: testua osatzea.

## 11. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari beste idazati bat gehitzeko emendakina.

“4. Kontseiluaren irizpen ez-loteslea nahitaez jaso behar duten gaiei buruzko xedapen eta ebazpenetan adierazi beharko da, haren irizpenari jarraikiz egin den ala ez; lehenbiziko kasuan “Nafarroako Kontseiluarekin bat etorriz” esamoldea erabiliko dute eta, bigarrean, “Nafarroako Kontseiluaren iritzia entzunda”.

Zioak: testua osatzea.

#### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 12. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hurrengo testua jarri, 4. artikuluko 1. zenbakia-  
ren ordeztu:

“1. Nafarroako Kontseilua zazpi kidek osatuko  
dute. Horietako bat kontseiluburua izanen da eta  
beste bat idazkaria.

2. Nafarroako Kontseiluko kideak Nafarroako  
Gobernuak izendatuko ditu, Foru Dekretuaren  
bidez, nafartasun politikoa duten izen eta espe-  
rientzia handiko legelarien artean.

Zioak: Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak  
Nafarroako Gobernuaren organu aholkuemaile  
izan behar du, Estatuko Kontseilua Estatuko exe-  
kutiboaren aholkuemaile den bezala. Beraz, orga-  
noaren osaera hein batean (eta honako honetan,  
hein handi batean) parlamentarioa bada, organoa-  
ren izaera juridikoa izundu egiten da, nolabait,  
Gobernuaren kontrol parlamentarioa egiteko  
modu berri baten aurrean izango ginatkeelako.

Beste alde batetik, proposatzen den idazkerak  
hauxe ulertzeko beta ematen du: Nafarroako  
Gobernuak proposatu bi kideei baino ez zaiela  
eskatzen “izen eta esperientzia handiko legela-  
rien...” kontu hori, eta ez, ordea, Parlamentuak  
proposatu bost horiei; hala gertatuz gero, aurreko  
lerroaldean esandako desitxuraketaz gain, Konsti-  
tuzio Auzitegiak eskatu duena ere ez litzateke  
beteko, alegia, autonomia erkidegoetako kontsei-  
luetako kideek kualifikazio tekniko zorrotza izan  
behar dutela.

### 13. EMENDAKINA

#### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. puntuari aurkezturiko emenda-  
kina, azken puntuaren ondoren, beste lerroalde  
bat gehitzekoa. Hona zer dioen:

1. puntua: Nafarroako herritartasuna izango  
dute.

Zioak: Nafarroan errotutako Kontseilua lortu  
nahi da. Beraz, eta begibistakoa eman dezakeen  
arren, Nafarroako herritartasuna behar duela jarri  
behar da.

### 14. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4.2 artikulua ordez beste bat jartzeko  
emendakina.

“Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileko kideak  
sei urterako izendatuko dira, eta berriro ere hauta  
edo izenda daitezke bata bestearen ondorengo  
aldietarako.

Hiru urtez behin berrituko dira Kontseilu Ahol-  
ku-emaileko kideen erdiak.”

Zioak: Egoki dirudi Kontseilu Aholku-emaile-  
ren erdia hiru urtez behin aldatzeko.

### 15. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4.2. artikulua ordez beste bat jartzeko  
emendakina.

Kontseiluko kideak sei urterako izendatuko  
dira, eta berriro ere izenda daitezke bata bestea-  
ren ondorengo aldietarako.

Zioak: aldaezintasun irudia ematea.

### 16. EMENDAKINA

#### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. puntuari aurkezturiko emenda-  
kina, azken puntuaren ondoren, beste lerroalde  
bat gehitzekoa. Hona zer dioen:

2. puntua, hauxe gehitu: “behin bakarrik”.

Zioak: gehienez 10 urtetara mugatzea Nafa-  
arroako Kontseiluko kideen egonaldia.

#### 5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 17. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5.2. artikuluari aurkezturiko emendakina, alda-  
tzekoa.

Beste idazkera bat:

“Kontseiluburuak eta kontseilukideek ez dute aldian aldiko ordainketarik jasoko beraien zereginarekin betetzeko. Dietak, bertaratzeagatiko eta ponentziengatiko gastuen ordainketak, joan-etorri eta egonaldi gastuak jasotzeko eskubidea izanen dute, erregelamendu organikoak horretarako xedatu duenarekin bat.”

Zioak: arlo ekonomikoa zehaztea.

## 18. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluari 3. zenbakia gehitzeko emendakina. Horra edukia:

“3. Kontseilukide guztiek, gainera, erregelamenduz ezarriko den ordaina jasoko dute txosten eta irizpenetan parte hartzeagatik.”

Zioak: Dietak besterik ez badira jasotzen, “dietak” hitza gaizki erabilia ez badago, behintzat, argi dago Kontseilu Aholku-emaileko kideek baka-rik onetsiko dituztela legegariak proposaturiko irizpenak, 20. artikulua araberara.

### 6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 19. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

6.1. artikulua ordeztzeko emendakina.

Indarra duten beste arauak aplikatuz dagozkien bateraezintasunez gain, Nafarroako Kontseiluko kide izatea kargu hauekin bateraezina izanen da.

a) Nafarroako Gobernuako lehendakaria edo kontseilaria.

b) Europako Batasuneko, Estatuko edo autonomia erkidego zein toki entitate bateko erakundeetako kargu hautetsia izatea.

c) Partidu politiko, sindikatu edo enpresarioen elkarte bateko zuzendaritza taldekoa izatea.

d) Fiskal edo epaileen kidegoko jarduneko kidea.

Zioak: Gobernuaren proiektuaren 12. artikulua- ren idazkerak egokiago ematen du, e) idazkia kenduta, gehiegizko dirudi-eta.

## 20. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina.

Seigarren artikuluko 1. zenbaki horretan, kontseilukide izatea eta enpresarioen erakunderen baten zuzendaria izatea bateraezina beharko luke- te, eta, hortaz, “sindikatu batean”en orde- z , “sindikatu edo enpresarioen erakunde batean” jarri.

Zioak: ez da inongo arrazoirik ageri sindikatu bateko zuzendaritza aritzea bateraezina izateko eta enpresarioen erakunde- en zuzendaritza aritzea bateragarria izateko, debekua espreski ager- tu ez denez gero.

## 21. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Seigarren artikuluko 1. puntuari beste testu bat gehitzeko emendakina:

1. puntuaria.- Hauxe jarri behar da, azken pun- tuaren ondoren: eta baita obra eta zerbitzu publi- koen emakidadun, kontratista, errentari edo admi- nistratzaile diren enpresetan edozein kargu izatea ere, enpresaren lurralde-eremua edozein dela.

Zioak: emandako idazkera osatu, hainbat lege- dik horri buruz jasotzen dutena jasoz.

## 22. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Seigarren artikuluari aurkezturiko emendakina.

6.3. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dirudi beharrezko denik funtzio publi- koko arau bat lege honetan sartzea.

## 23. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordeztzeko emendakina.

6.3. artikuluan: “Kontseilukide kargua hartzen duten funtzionario publikoek jatorrizko Administrazioan jarduneko zerbitzuan jarraitu ahalko dute. Kasu horretan, funtzionario publikoen beteraezintasunari buruzko araubide orokorra aplikatuko zaie, unibertsitatekoei ezik.”

Zioak: Erakunde hori arautzen duten lege autonomiko ezberdinetan jasotzen den salbuespenari eustea.

## 24. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina.

Seigarren artikuluko 3. zenbakiaren bukaeran hauxe gehitu: “5. artikuluko 2 eta 3 zenbakietan aurrekusi kalteordainak jasotzeko aukera deuseztan galarazi gabe”.

Zioak: 5. artikuluko 3. zenbakiari egin zaion gehitzeko emendakinarekin bat etortzearen.

## 7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 25. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Zazpigarren artikulua 1. puntuari gehiketa egiteko emendakina, g) letra alegia. Honela geratuko da idatzita:

g) Nafarroako herritartasuna galtzea.

Zioak: aurreko emendakinekin bat etortzearen.

## 26. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

7.2. artikuluan, “botoa”ren ordez “txostena” jarri.

Zioak: Gertaturiko bateraezintasunen kasuan baino areago, objektiboki finkatu daitezkeelako, finean, Foru Lege proposamenak, eginkizunak ez betetzea gertatuz gero, Kontseiluaren independentzia bermatze aldera jotzen du, kontseilukideetako baten “botere politikoarekiko intsumisioko”

jarrera gertatuz gero kargutik kentzeko zigorra saihesteko, zereginak betzen ez direla argudiatuz.

## 27. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluari aurkezturiko aldatzeko emendakina.

2. idatzatian, hauxe dioenean:

“Kontseiluaren botua beharko da, kideen gehiengo osoarekin”

hauxe esan behar du:

“Kontseiluaren irizpena beharko da”.

Zioak:

Ez du koherente ematen c) eta d) idatzietako aplikazioa Kontseiluak berak erabakitzeak.

## 28. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa.

Zazpigarren artikuluko 4. zenbakian, hurrengoaren ordez: “Kontseiluak gehiengo osoaz hala proposaturik, ..., prozesatzeagatik edo artikuluko honetako 1 zenbakian kargua uzteko aipatzen diren zioengatik”; hauxe jarri “Kontseiluaren iritzia entzun ondoren, kontseilukideak funtzio gabetu ahalko ditu, artikuluko honetako 1. zenbakiko c) eta d) letretan kargua uzteko egoerei buruzko ebazpena emateko behar den ezinbesteko denborarako eta, halaber, prozedura penala gertatzen den kasuetan.”

Zioak: Artikulu bereko 2. zenbakiari aurkeztu emendakinaren zioetan esandako arrazoi berberak, baina, horietaz gain, oraingo honetan proposamenak hauxe planteatu du: Gobernuko Lehendakariak ezin izango lituzkeela kontseilukideak karguaz gabetu ezta agintaldia bukatzen denean edota epai batek deklaraturiko ezgaitasuna gertatzen denean ere, Kontseiluko gehiengo osoak baimenik ematen ez badu. Beto-aukera onartezina dakar horrek.

**29. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Zazpigarren artikuluari aurkezturiko emendakina.

7.4. idazatian, hauxe esaten duenean:

“Kontseiluak gehiengo osoaz hala proposaturik”

Hauxe esan behar du:

“Kontseiluari entzun ondoren”

Zioak: Ez dirudi Kontseiluari dagokiona erabakia denik.

**8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****30. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Zortzigarren artikuluko 1 eta 2. zenbakien ordeztu 1 zenbakia daraman idazatia jartzeko emendakina. Hona edukia:

“Kontseiluburua Nafarroako Gobernuak izendatuko du kontseilukideen artean, Foru Dekretu bidez”.

Artikulu horretako 3, 4 eta 5 zenbakiak 2, 3 eta 4 izatera pasatuko dira.

Zioak: Gobernuaren organo den horren burua aukeratzeko eskumena Gobernuari berari utzi behar zaio, eta ez Kontseiluari berari.

Eskumen hori Ministroen Kontseiluak Estatuko Kontseiluaren buruarekiko duenaren parekoa da, eta horrek ez dio objektibitate edo independentziarik kentzen.

**31. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko emendakina.

8.3 idazatiaren ordeztu, hurrengo idazkera jarri:

“3. Kontseiluburuaren agintaldiak sei urte iraunen du, eta kontseilukide zereginetan aritutako

denbora eta kontseiluburutuan emandakoa hartuko ditu.”

Zioak: sei urteko iraupenari egokitu. Ez dirudi arrazoizkoa denik behin bakarrik hautatu ahal izatea berritri, kontseilukideei ez zaielako halako mugarik jartzen.

**32. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

8.3. artikuluari aurkezturiko emendakina, ordeztzekoa.

“Kontseiluburuaren agintaldiak sei urte iraunen du. Horiek iragan ondoren, kargu horretarako hautatua izaten ahalko da.”

Zioak: Kontseilukideei emandako epearekin bat etortzearen egindako emendakina.

**33. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko emendakina.

Zortzigarren artikuluko 3. zenbakian hitz hauek kentzea “behin besterik ez da”.

Zioak: ez da ulertzen zergatik Kontseiluburua ezin daitekeen birritan baino gehiagotan hautatu, kontseilukide birritan baino gehiagotan hauta dezaketean bitartean.

**34. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Zortzigarren artikuluari aurkezturiko emendakina, kentzekoa.

5. atala kentzea.

Zioak: beste emendakin batean sartu da.

**35. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikuluko bat sartu, 8 bis alegia, hurrengo edukiarekin:

“1. Kontseiluko idazkaria Nafarroako Gobernuak izendatuko du Foru Dekretu bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen artean, hain zuzen, oinarrizko lanpostuan sartzeko zuzenbidean lizentziatua izatea titulu bakartzat eskatu zaienen artean.

2. Kontseiluko idazkari izendatzen den funtzionarioa organo horri atxikiko zaio, zerbitzu berezietako administrazio egoeran, erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasoko ditu eta erabateko dedikazioan ariko da, 13.2 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

3. Idazkari kargua bete gabe eta hura kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari gazteena arituko da, kontseiluburua izan ezik.”

Zioak: Egokiago iruditzen zaigu kontseilukideetako bat izatea idazkaria, kontseilukideetan osoko dedikazioa izango duen bakarra, alegia. Horrek bide ematen du Kontseiluko legegarien lanposturik ez sortzeko eta bat dator kontseilukideei irizpenen ponentzien ardura ematearekin.

### 36. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8 bis artikulua gehitzeko emendakina. Horra edukia:

Kontseilukide den aldetik dagozkion eginkizunez gain, kontseiluburuak honako hauek ere izanen ditu:

- a) Nafarroako Kontseiluaren ordezkari izatea.
- b) Kontseiluaren bilkuretarako deia egitea, bertan buru izatea eta bilkurak zuzentzea.
- c) Gaiak kontseilukideen artean banatzea, txostena egin dezaten.
- d) Kontseilutik kanpoko adituak izendatu eta txostenak egin ditzaten agintzea, beharrezkoa ikusten denean.
- e) Gastuak baimentzea eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuari eskatzea dagozkion ordainketak egitea..
- f) Erregelamendu organikoan finkatuko diren gainerako eginkizunak.”

Zioak: kontseiluburuaren eginkizunak zehaztea.

### 9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 37. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bederatzigarren artikulua edukiaren ordezkari, hurrengo jarri:

“Nafarroako Kontseilua eratu eta hilabeteko epearen barruan, Nafarroako Gobernuak haren funtzionamendurako Erregelamendua onetsiko du.”

Zioak: Proposamenean ez da inongo eperik aipatzen erregelamendua onesteko, baina badira hasiera-hasieratik erabaki beharreko alderdi batzuk, Kontseiluak ongi funtzionatuko badu.

### 10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 38. EMENDAKINA

#### MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Hamargarren artikulua ordezkari, hurrengo testua jarri:

10. artikulua. Kontseiluak bere aurrekontua prestatuko du, Nafarroako Gobernuarekin bat, eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan atal gisa agertuko da.

Zioak: Kontseiluaren aurrekontua landu eta, ondoren, onesteko bi beharrezkoak finkatzea: egiterakoan Gobernuarekin bat etortzea eta Parlamentuak onetsi beharra, Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuaren baitan.

### 39. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua eduki aldatzeko emendakina. Horra: “Behar diren baliabide materialak eskuratzeko, Nafarroako Gobernuaren gastuen aurrekontuan horretarako behar diren kontusailak finkatuko dira, programa berariazko bat osatuko baitute.”

Zioak: Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezarri du departamentuek landuko dituztela beraien aurrekontuen proiektuak. Foru

Lege proposamenak, hala ere, aipatzen du Kontseiluak bere aurrekontua egingo duela, eta departamentuen gaintik jartzen du, beraz. Hori nekez uztar daiteke Gobernuaren organo soila izatearekin (ezinbestean departamenturen bati atxikia, kudeaketa medio), Kontseilua ez baita foru-erakundea, Parlamentuko zerbitzu juridikoek oraintsu aipatu duten bezala, Kontseilua arautzeko Foru Legea onesteko azken bozketak gehien-go osorik behar ez duela zehaztean.

Beste alde batetik, zuzenagoa da aurrekontu-programa aipatzea aurrekontu-sekzioa baino.

#### 40. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren artikuluari beste lerroalde bat gehitzeko emendakina:

“Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak bere plantila organikoa onetsiko du eta Lehendakari eta Barne Departamentuan sartuko da, administrazio kudeaketaren ondorioetarako, soilik.

Zioak: plantila organikoa eta haren kokapena aurreikustea.

#### 11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 41. EMENDAKINA

##### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

11.1. artikulua a) idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: LORAFNA aldatzeko prozedura aipatu Lege Organikoaren 71. artikuluan dago aurreikusita, zehatz-mehatz. Beraz, beste izapide bat ezartzean (Kontseilu Aholku-emailearen derrigorrezko txostena) uler daiteke hasieran aipatutakoaren baitan sartu nahi dela, maila apalagoko arau baten bidez. Baieztapen horri gehiegizko irizten bazaio, hauxe ere pentsatu behar da, hots, 71. artikulua araberako aldaketa susta daitekeela Kontseilu Aholku-emailearen derrigorrezko txostena lortu gabe, eta hor gatazka sor daitekeela.

#### 42. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hamaikagarren artikulua 1 zenbakiko a) idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: ez dirudi egokia denik aholkua emateko organo administratibo batek legeei buruzko txostenak ematea, irizpide politikoak sartu beharko lituzkeelako, edota, arazo teknikoak planteatuz gero, ez lituzke Parlamentuko legelarik ordeztu beharko.

#### 43. EMENDAKINA

##### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzekoa.

11.1 artikuluko b) idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: kontraesana da aipatu artikuluan esatea Kontseiluak txostena eman behar duela derrigorrez lege proiektu eta proposamenen kasuan, baina organo batzuek hala erabaki badute; beraz, nahizgeroko txosten bihurtzen dira.

Beste alde batetik, artikuluari eman zaion idazkeraren arabera, Gobernuak zein Parlamentuak eska dezakete foru lege proiektuei buruzko txostena.

Edonola ere, ezin da foru lege proiektuaz hitz egin Gobernuak halakotzat onetsi ez duen bitartean. Hala bada, norentzako da Kontseiluaren txostena (Gobernuaren organo aholku-emailea baita), gaia Gobernuaren eskuetatik atera bada?

#### 44. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

11.1 artikuluari aurkeztua.

Hurrengo idazkera jarri b) idazatian:

“b) Legeak betearazteko asmoz, izaera orokorrez ematen diren Erregelamendu eta xedapenen proiektuak eta haien aldaketak.”

Zioak: egokiagoa.

**45. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hamaikagarren artikuluko b) idazatia aldatzeko emendakina, hurrengo testua jartzea proposatzen da:

“b) Nafarroako Parlamentuari eztabaidatu eta onesteko helarazten zaizkion foru lege proiektu eta proposamenetan, Nafarroako Parlamentuak hala nahi duenean bere Lehendakariaren bidez, Mahaiak, bi Parlamentari Taldek edo Foru Parlamentarien bosten batek eskatuta, edo Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez.”

Zioak: Nafarroako Parlamentuari helarazten zaizkion proiektu eta proposamenen zuzeneko harremana ezartzea.

**46. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

11.1 artikuluari aurkeztua.

c) idazatian.

Hauxe dioenean: “Foru Dekretu Legegileetarako”

Hauxe esan behar du: “Foru Dekretu Legegilerako”

Zioak: erabilitako esamoldea ez da zuzena.

**47. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina

11.1 artikuluko d) idazatia kentzeko emendakina.

Zioak: aipatu den d) idazatiaren idazkera 17. artikuluekin lotzen badugu, gatazka sor daiteke Kontseilu Aholku-emailearen irizpena Lankidetzaren Kontseiluaren erabakien aurretik edo ondotik eman behar den, azken horri helarazten zaizkion gaietan. Hori ez da bidezkoa.

**48. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina.

11.1 artikuluari aurkeztua.

d) idazatia kentzea.

Zioak: ez du egokia ematen

**49. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
EKARGUNEA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hamaikagarren artikuluko d) idazatia aldatzeko emendakina. Hurrengo testua jarri haren orde:

“d) Estatuarekiko, beste autonomia erkidego eta administrazio publikoekiko lankidetzaren hitzarmen edo itunetan, Foru Komunitatea alderdi bat denean, eta horiei buruzko zalantza eta ezadostasun orotan.

Zioak: Estatuarekiko, beste autonomia erkidego eta administrazio publikoekiko lankidetzaren adostasunerako modu ezberdinak sartzea.

**50. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina.

11.1 artikuluari aurkeztua

e) idazatia

Beste idazketa bat:

“e) Nafarroako Kontseilu Aholku-emailearen antolaketa, eskumenak edo funtzionamendua ukitzen dituzten foru legeen aurreproiektuak eta administrazio xedapenen proiektuak.”

Zioak: egokiago ematen du lege proiektuaren idazkerak.

**51. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

## PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina.



11.1 artikulua f) idazatia kentzekoa.

Zioak: inongo diferentziarik ez denez, Nafarroako Parlamentuak aurkezturiko konstituziokontra-kotasun errekursoak ere (2/1979 Lege Organikoko 32.2 artikulua) irizpenpean jarri beharko lirake. Talde hau ez dator horrekin bat, esandako arrazoiengatik.

## 52. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina

11.1 artikuluari aurkeztua.

f) idazatia

Kentzea.

Zioak: ez du egoki ematen.

## 53. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

g) idazatia.

Bestelako idazkera:

“g) Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia alorreko eskubideei buruzko transakzio judizial zein esparru judizialek kanpokoak, eta horien inguruko aferen arbitraje gaiak, kasu bietan auzitan dagoena berrogeita hamar milioi pezetatik gorakoa denean. Dena den, salbuetsita geldituko dira eskubide horiek ukitzen dituzten erabaki edo hitzarmenak, lehiaketa prozeduren ondorioz sortu direnean, hain zuzen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 15. artikulua 2. zenbakiko bigarren leerroaldean aipatzen direnak.”

Zioak: proiektuaren idazketa egokiagoa da.

## 54. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

11.1 artikuluari aurkeztua.

h) idazatiari.

Hauxe esaten duenean: “bereizketa”.

Hauxe esan behar du: “kargugabetzea”.

Zioak: egokiagoa.

## 55. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

11.1 artikuluari aurkeztua.

i) idazatiari.

Kendu egin behar da.

Zioak: b) idazatiaren barruan dago.

## 56. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko emendakina.

11.1 artikulua j) idazatia kentzea.

Zioak: Ez da egoki eta beharrezkotzak jotzen Gobernuko organo batek, exekutibioak berak antolamendu-gaietarako sortu dituenen bestelako batek, alegia, azken txostena eman beharra Administrazioaren jardunaren barruko gaietan. Gainera, 23/1983 Foru Legeak nahikoa tresna ditu eskumen-gatazkak konpontzeko.

## 57. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

11. artikuluari aurkeztua.

l), ll), m), n), o), p), q) idazatien ordeztu, hurrengoak jarriko dira, dagozkien letrekin:

“(\*) Legearen arabera, erakunde aholku-emaile baten nahitazeko irizpena behar duten gaiei buruz Administrazioak izapidatzen dituen espedienteak, besteak beste, honako gaiei buruzkoak:

– Hogei milioi pezetatik gorako kalte-galeren ordainen erreklamazioak.

– Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena.

– Hirigintza planeamenduaren baliabideen aldaketa, berdegune edo gune irekien zonifikazioa aldatu edo horien erabilera ukitzen denean.

– Udalerriak aldatzeko espedienteak.

\*) Administrazio kontzesio eta kontratuak interpretatzea, baliogabetzea eta ebaztea, kontratista aurka agertzen denean; orobat, kontzesio eta kontratuak aldatzea, horien zenbatekoa, dela bakarka dela osorik hartuta, kontratuaren adjudikazio prezioaren % 20tik gorakoa denean eta kontratua 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa denean.

\*) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluaren nahitaetzko irizpena behar duten gainerako gaiak.

Zioak: egokiago irizten diogu lege proiektuaren idazkerari.

## 12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 58. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzekoa.

Hamabigarren artikuluan hurrengo esaldia kendu “edo Nafarroako Parlamentuak, bere Lehendakariaren bidez, Mahaiak, bi Parlamentari Taldek edo Foru Parlamentarien bosten batek hala eskatuta.”

Zioak: Talde honek aurkeztu dituen beste emendakin batzuen zioetan adierazi den bezala, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileak Nafarroako Gobernuaren organo aholku-emaile juridiko behar du, Estatuko Kontseilua Estatuko Gobernuarentzat den bezalakoa, Kongresuarendako eta Senatuarendako izan gabe.

### 59. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina.

12. artikuluari aurkeztua.

Hurrengo esamoldea kendu: “edo Nafarroako Parlamentuak”.

Zioak: beste emendakin batzuekiko koherentzia mantentzearren.

## 13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 60. EMENDAKINA

#### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina

Hamahirugarren artikulua kendu eta xedapen iragankorra sortu, hurrengo edukiarekin: “Legeen arabera nahitaetzko irizpena Estatuko Kontseilutik hartu beharra izanik, Foru Lege honek indarra hartzen duenerako hasiak diren espedienteak Nafarroako Kontseiluari igorriko zaizkio.”

Zioak: guztiz desegokia iruditzen zaigu “ordezkatu du” hori erabiltzea, bi organoen benetako parekatzearen kaltetan gabe.

### 61. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko emendakina.

13 bis artikulua jarri.

Idazkera berria:

“13 bis. Irizpena eskatzea.

1. Nahitaetzko txostena behar duten gaien inguruko Kontseiluaren irizpena Nafarroako Gobernuko lehendakariak, Nafarroako Gobernuak edo kasuan kasuko gaiaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuaren kontseilariak eskatu ahalko dute.

2. Gainerako kasuetan, irizpena Nafarroako Gobernuak edo lehendakariak berak eskatu ahalko dute, beste inork ez.

3. Nafarroako toki entitateetako lehendakariak edo beste korporazio, erakunde edo entitate publikoen ordezkariak berenganatua duten organoei dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea, indarra duen legeriaren arabera nahitaetzkoa den kasuetan. Eskaera hori Nafarroako Gobernuko lehendakariaren bitartez eginen da.”

Zioak: proiektuaren testua jaso.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK

**62. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

14. artikuluarri.

1. eta 2. idazatiak.

Beste idazkera bat.

“1. Kontseiluaren irizpen eta erabakiak baliozkoak izateko, kontseiluburuak eta idazkariak, edo legez haien ordeztuz aritzen direnek, bilkuran egon behar dute, eta horiekin batera, gehiengo absolutua osatzeko behar diren hainbat kontseilukidek, gutxienez.

2. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoaz.

Berdinketa izanez gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa erabakigarria izanen da.

Zioak: proiektuaren testuak egokiago ematen du.

**63. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina

14. artikuluarri aurkeztua.

4. idazatia.

Beste idazkera bat:

“4. Kontseilukideek zuzeneko interes objektibo zein subjektiboa duten gaietan parte hartzeari uko egin beharko diote, administrazio prozedurari buruz indarra duen araudiarekin bat etorritik.”

Zioak: proposamenaren hutsune bat betetzea.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK

**64. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina

15. artikuluarri aurkeztua.

1. eta 2. idazatiak.

Beste testu bat:

“1. Kontseiluak aztergai jartzen zaizkion afere-tan gaitasun tekniko nabarmena duten erakunde, entitate edo adituen partehartzea eskatu ahal-ko du, txostena egin dezaten. Kasu horietan, Kontseiluaren azken irizpenean adierazi beharko da zehazki zer eskatu zaien eta txosten hura irizpe-narekin batera aurkeztuko da.

2. Orobat, aztergai jartzen den espediente-lean legezko eta zuzeneko interesa duten pertsona fi-siko eta juridikoei entzunaldia ematea erabaki de-za-ke.”

Zioak: hobeto idatzita.

**65. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina

15. artikuluarri aurkeztua.

3. idazatia.

Bestelako idazkera:

“3. Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aur-keztu beharko da.

Kontseiluak uste badu espediente-lean osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez, eskatu ahal-ko du behar den dokumentazio osagarria ekar dezaten. Kasu horretan, irizpena emateko aurreko artikuluan ezarri epea eten eginen da, behin baino ez, beti ere.

Zioak: hobeto idatzita.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK

**66. EMENDAKINA**

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko emendakina.

16. artikuluko 1. zenbakitik hurrengo hitzak kendu: “Epea bukatutakoan erantzunik ez bada, aurkeztutako gaiaren aurkako objektiorik ez dagoela ulertuko da.”

Zioak: esaldi hori proposamenean sartzeak isiltasun positiboa ezartzea dakar, eta Kontseiluarren jarduketa jasan beharreko izapidetzat jotzea.

#### 67. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina

16. artikulua

Hurrengo esaldia ordeztea proposatzen dugu:

“objekziorik ez dagoela ulertuko da.”

Hauxe jarri haren ordeztu:

“izapidea betetzat joko da”.

Zioak: hobeto egokitzen zaio eskatzen denari.

#### 17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 68. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko emendakina

17, 18 eta 19. artikulua

Horiek kentzea proposatzen da.

Zioak: ez du beharrezko direnik ematen.

#### 69. EMENDAKINA

##### MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

17. artikuluari aldaketa egiteko emendakina.

17. artikuluan, hurrengo esaldia kendu “ondorengo sei hilabeteetan”, gainerakoa, berdin.

Zioak: aurretik egindako beste emendakin batekin bat etortzearen.

Ez da egokitzen jotzen bestelako organo aholku-emaileek kontrako txostena eman ahal izatea Nafarroako Kontseiluak derrigorrez txostena eman behar duen gaietan, 6 hilabete igaro arren.

#### 18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

#### 70. EMENDAKINA

##### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko emendakina.

Foru Lege proposamenaren 18. artikulua edukia kentzeko emendakina.

Zioak: Kontseilu Aholku-emaileak gaia dela-eta derrigorrez txostena eman behar duenetan eta kontseilariaren eskumena denean (esate baterako, kontratu deuseza, kontratista aurka dagoela) baino ez lukete kontseilariak zuzenean jo behar Kontseilura. Hala bada, ez dago erabakitze eskumena zertan aldatu, aholkua eskatzen duen organoan kontseilari bakarria izateagatik.

#### 20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 71. EMENDAKINA

##### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa.

20. artikulua 1 eta 2 zenbakiak kentzeko emendakina.

Zioak: proposamenak lanpostu berria sortu du, Nafarroako Kontseilu Aholku-emailearen legelaria, alegia, eta ez ditu horren oinarriko zehaztasunak ezarri (ordainketak, eta abar). A mailako lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioen artean aukturatuko dela esatea ere ez da erabakiorra, gerta baidateke maila apalagoko funtzionarioak aldi baterako betetzen aritzea lanpostu juridikoa, Zuzenbide Lizentziatuaren tituluaren jabe izanik.

Gainera, 23/1983 Foru Legeko 46.5 artikulua aurkakoa da, Lehendakaritza eta Barne kontseilariari dagozkion langileen arloko eskumenak ematen zaizkiolako Kontseilu Aholku-emaileari.

#### 72. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko emendakina.

20. artikuluari aurkeztu zaio.

Lehenengo eta bigarren idazatiak bestela idatzita:

“20. artikulua.

1. Kontseiluak idazkari nagusiaren eta legelarien laguntza izanen du. Legelarien kopurua erregelamenduz zehaztuko da.

2. Kontseiluak, gehiengo absolutuaz, Idazkari bat aukeratuko du Kontseiluko legelarien artean. Idazkaria izateko izendapenak sei urteko iraupena izanen du, gero ere berritzen ahalko direnak. Idazkaria Kontseiluaren bileretara joango da eta hizpidea izango du, botorik ez, ordea. Kontseiluko langileen burua izanen da, Kontseiluburuaren ahalmenen kaltetan gabe.

3. Nafarroako Foru Komunitatearen Lege Aholkulari-Legelarien kidegoko funtzionarioen artean aukeratuko dira Kontseiluko legelariak, merezimendu-lehiaketaren bitartez. Kontseiluari aholkua eman dezan bidaltzen zaizkion gaiak aztertu eta prestatuko dituzte eta, hala bada, gai horiei buruzko irizpenen proiektuak idatziko. Erregelamenduz zehaztuko diren bestelako eginkizun batzuk ere izan ditzakete, ongi egokitzen bazaizkie.

Zioak: idazkari nagusiaren eta legelarien izendapena mugatzea.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

**73. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehikuntza egiteko emendakina.

Lehen xedapen gehigarri berria, hurrengo testuarekin:

“Kontseilu Aholku-emaileko kideek zerbitzu-harremanik baldin badute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaz bestelako administrazio publiko batekin, azken honen baimena beharko dute Kontseiluan sartzeko.”

Zioak: beharrezko dirudi aukera hori finkatzeko.

**74. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehikuntza egiteko emendakina.

Bigarren xedapen gehigarri berria, hurrengo testuarekin:

“Bigarren xedapen gehigarria.

1. Foru Lege honetako 20. artikulua behar bezala betetzeko, Nafarroako Foru Komunitatearen Lege Aholkulari-Legelarien kidegoa sortu da, A mailaren baitan. Kidego horri egokituko zaio Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileko legelariei legez ezarri zaizkien eginkizunak betetzea eta baita Nafarroako Foru Komunitateari eta haren erakunde autonomoei zuzenbidezko aholkularitza ematea eta horiek epaiketetan ordeztu eta defendatzea ere, erregelamenduz zehaztuko den eran.

2. Nafarroako Gobernuako lege aholkulari lanposturako izendapena jabetzan duten karrerako funtzionarioek osatuko dute Nafarroako Foru Komunitatearen Lege Aholkulari-Legelarien kidegoa. Kidego horretan harrezkero sartzea, zuzenbide lizentziatuen arteko oposizioz egingo da.

Zioak: beste emendakin batzuei egokitzea.

**XEDAPEN IRAGANKORREI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

**75. EMENDAKINA**

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ordeztekoa.

Hurrengo jarri lehen xedapen iragankorren 1 zenbakiaren edukiaren ordeztu:

“Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea Foru Lege hau aldarrikatu eta bi hilabeteko epearen barruan eratu beharko da.”

Zioak: UPN taldearen jarrerarekin bat, Parlamentuak proposatutako kontseilukiderik izendatzearen aurka baitago.

Beste alde batetik uste dugu nahikoa dela bi hilabeteko epea, Parlamentuaren proposamenik ezean.

**76. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzekoa.

Bigarren xedapen iragankorra kentzea.

Zioak: 20. artikuluko 1 eta 2 zenbakiak kentze-ari buruz esandakoarekin bat egiteko.

Berriz diogu Kontseilu Aholku-emaileak, bere zeregin bakarra aholkularitza juridikoa duen organo den aldetik, ez duela Foru Komunitateko Administrazioaren langileak aukeratzeko ardurarik izan behar.

**77. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko emendakina.

Bigarren xedapen iragankorra kentzea.

Zioak: funtzio publiko araua da, araututa dago, jada.

**78. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Ordeztekoa.

Lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrek xedapen gehigarri edo azken xedapen behar dute, dagozkien zenbakiekin.

Zioak: Kontseilu Aholku-emailea abiarazteko arauak dira eta ez egungo errealitate juridikotik etorkizunekora igarotzeko araubide iragankorrekoak.

**79. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Gehikuntza egiteko emendakina.

Laugarren eta bosgarren xedapen iragankor berriak.

Testu berria:

“Lehen xedapen iragankorra. Foru Lege honek indarra hartu aurretik, nahitaezko irizpena jasotze-

ko, Estatuko Kontseilura igorriak diren espedienteen izapidatzea hasitako bideari segituz eginen da.

Bigarren xedapen iragankorra. Legeen arabera nahitaezko irizpena Estatuko Kontseilutik hartu beharra izanik, Foru Lege honek indarra hartzen duenerako hasiak diren espedienteak Nafarroako Kontseiluari igorriko zaizkio.

Zioak: Beharrezko dirudi.

**AZKEN XEDAPENEI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****80. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko emendakina.

Azken xedapenetan lehenengoaren bigarren erroaldea.

Zioak: ez da beharrezko.

**81. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Gehikuntza egiteko emendakina.

Azken xedapen berria, hurrengo testuarekin:

“Hirugarrena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatzeko arauak eman eta betetzeko behar diren neurriak har ditzan.”

Zioak: testuaren balizko hutsunea betetzea.

**TITULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINA****82. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO  
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Foru Lege proposamenaren izenari buruzko emendakina, “aholku-emaile” hitza kentzeko.

Zioak: nahikoa zehaztuta dago Kontseiluaren izaera aholku-emailea dela eta ez dago legearen

izenean jarri beharrik. Estatuko Kontseilua ere aholku-emailea da eta ez darama izenean.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

**83. EMENDAKINA**

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Ordeztekoa.

**ZIOEN ADIERAZPENA**

Nafarroako gobernamentuaren jardunak, historian zehar, erakunde aholku-emaileen laguntza izan du. Horien artean aipagarriena Nafarroako Errege Kontseilu Gorena izan da, izan duen iraupena eta garrantziagatik. Gobernu lanetan aholkuak ematea zegokion eta errege botereak "sobrecarta" izeneko eskubidearen bidez emandako xedapenen legezkotasuna eta forutasuna begiratzea.

Foru Lege honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Kontseilua eratzen du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetze-ari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.a) eta e) artikuluan bildutako foru araubidearen indarrez bere foru erakundeak eta Foru Komunitateko Administrazioa antolatze-ko duen erabateko eskumenaz baliatuz. Foru Komunitateko Gobernuaren eta Administrazioaren organo aholku-emaile gorena izanen da, aipatu Lege Organikoaren 20.2 artikuluari jarraikiz.

Izaera tekniko-juridikoko organo aholku-emaile goren horren eraketak jardun administratiboa hobetzea du xede, bi alderditatik: administrazioaren ikuspegitik, hartzen diren erabakien legezkotasuna bermatuko baita, eta hiritarren ikuspegitik, beren eskubideak babesteko beste baliabide eraginkorrago bat izanen baitute. Denborarekin, organo honen doktrinari esker, arau juridikoen interpretazio egokiagoak eginen dira, Konstituzio-arekin eta LORAFNarekin bat etorritik.

Indarra duen arauteriak eta konstituzioaren jurisprudentziak, zeinen indarrez autonomi erkidegoek eta, hortaz, Nafarroako Foru Komunitateak beren organo aholku-emaile gorenak eratzeko eskubidea baitute, Nafarroak arlo horretan dituen eskubide historikoak babesten dituzte.

Nafarroako Kontseiluaren eraketa, beraz, justifikatuta dago erabat, izan ere foru erakundeen eskema hobetuko du, Estatuko Kontseiluaren partehartzea beharrezkoa izanen ez delako, eta Foru Komunitatearen autogobernu maila goratuko.

Nafarroako Kontseilua organo aholku-emaile gisa eratu da, organo erabakitzaileetatik aparte. Autonomia organiko eta funtzionala izanen du eta eskumen esparru berariazkoa emanen zaio. Kideen araubideak beren kualifikazio tekniko zorrotza bermatuko du eta, halaber, horien neutraltasuna eta inpartzialtasuna.

Zioak: behar duen garrantzia ematea Nafarroako aurrekari distiratsuekin lot daitekeen organismoari.

**84. EMENDAKINA**

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Aldatzekoa.

Zioen azalpenaren hirugarren lerroaldean "behartzen" hitzaren ordez "onesten" hitza jarri.

Zioak: Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ez du exijitzen Estatuko Kontseiluaren pareko autonomietako organo aholku-emaileak sortzea, sortzeko aukera ematen baizik.

Aitzitik, sortzen badira baldintza batzuk betetzea eskatzen du, dagokion autonomia-erkidegoen eskumenpeko gaietan emango dituzten irizpene-ek Estatuko Kontseiluak emandakoen balio bera izango badute.

**85. EMENDAKINA**

**MARTIN LANDA MARCO  
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren azken lerroaldeari buruzko emendakina.

Nafarroako Kontseiluaz ari den "Aholku-emailea" hitza kentzea, aipatu Zioen azalpenaren azken lerroaldearen lehen lerroan agertzen den hori, alegia.

Zioak: aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--